



Euskal Herriko
Trikitixa Elkartea

L.G.: SS-418-01

www.trikitixa.eus

INPERNUKO POZA TRIKITIXAREN XVI. JARDUNALDIAK “TRIKITIXAREN HISTORIA”

Gaur egun trikitixak Euskal Herrian eta munduan daukan presentzia ulertzeko, kokapen historikoa eta orain artekoaren errebasoaz, euskal identitatearen hauspoari eragin nahi diogu. Geldialdi bat egingo dugu orainean eta atzera begira jarriko gara, igarotako denboratik eta esperientziatik zer ikasi dezakegun jakiteko, eta era berean gaur egungo egoera ulertzeko, bihurtzeko hausnartzeko.

Antropologo eta historialariek batera, trikitixaren ibilbidea aztertu duten musikariak gonbidatu ditugu Inpernuko Poza Trikitixaren XVI. Jardunaldi hauetara. Begirada zorrotzaz eta bakoitzak bere esperientziatik gaur egunean kokatuko gaituzte historia errebasatuz.

EGUNA: Irailak 6, osteguna (19:30)

LEKUA: Donostiako Udal

Liburutegiko Sotoan

MAHAI INGURUA: Gurutze Lasa,

Agus Barandiaran eta Julen Leuza

MODERATZAILEA: Alex Artzelus

TRIKITIXAREN HISTORIA

Agian kontrakoa badirudi ere, ez da arreta handia eskaini izan zaion gaia honakoa, izan ere kontraesanak eta puntu nabarrak ez dira falta. Soinu txikiaren etorreratik hasiko gara, eta gerra aurreko eta ondoreneko sasoiak jorratuko ditugu, lehen diskoak, erdararen eta

euskararen presentzia, dantza lotuaren debekua, txistua bezalako beste instrumentu batzuen prestigioa, eta alboka edota dultzaina bezalako beste batzuen atzerakada. 60tik aurrerako loraldiari lotuko gatzazkio jarraian, soinu txikia euskal kulturaren erdigunean kokatuta egotera pasatzen den garaira, hain zuzen ere. Lehen txapelketak, jaialdiak, Arrate eta Loiola irratien sorrera, etab. Ondoren, 90ko hamarkada etorriko da, eta berarekin trikitiaren modernizazioa, Gozategi, Alaitz eta Maider, Maixa eta Ixiar edota Tapia eta Leturia bezalako bikote iraultzaileak. Eta non gaude gaur egun? Esan ote liteke oraindik ere 90ko iraultza hartan gelditu ginela aurrera egin barik, edota bestelako etapa batera igaro garela baieztatu ote liteke? Zenbateraino ezagutzen dugu trikitixaren historia? Zer da tradizioa, zer berri-tzailea? Zer trikitixa?

Galdera konplikatu hauei guztiei erantzuna ematen saiatuko gara Gurutze Lasa, Agus Barandiaran eta Julen Leuzarekin. Ikertzaile baten ikuspuntua emango digu Gurutze Lasak, eta emakumearen garrantzia azpimarratuko, ez baita makala izan trikitixaren historia osoan zehar. Tradizioaren garrantziaz hainbeste gogoeta egin duen taldeko arima dugu Agus Barandiaran, eta gaur egungo trikitixaren munduan leku azpi-

marragarria du. Julen Leuza alboka eta beste hainbat instrumentu jotzen aritzen da Zopilotes Txirriaos taldean. Soinu txikia agertu denetik ze presentzia dute beste instrumentuek, zenbateraino da trikitixa beste instrumentuokin jotako musika? Nola izan da euren arteko harremana historian zehar? Zalantzarik ez da hiru gonbidatuon ekarpena baitezpadakoa izango dela trikitixaren historiaren nondik norakoak marrazteko.

Alex Artzelus

EGUNA: Irailak 7, ostirala (19:30)

LEKUA: Donostiako Udal

Liburutegiko Sotoan

HITZALDIA: Haritz Garmendia

TRIKITIXAREN HISTORIA TRIKITIXA MUGIMENDUTIK ERAIKITZEN

Hitzaldi honetan trikitixa mugimenduak etorkizuna izan dezan bere historiari jabetu behar duela azpimarratuko da. Alabaina, trikitixaren historia eraikitzen hasi aurretik, honako bi galdera hauei erantzutea ezinbestekoa da: zer da trikitixa eta zer da historia? Galdera horien inguruan hobesten ditugun erantzunak ez dira neutroak. Are gehiago, eztabaida teorikoaren mugak gainditu eta ondorio praktikoak dituzte. Gure hitzaldiaren abiapuntua helmuga bera da, alegia, zein da etorkizuneko Euskal Herri euskaldun eta trikitizale bat eraikitzeko trikitixa mugimendutik trikitixaren historiaren inguruan hobetsi behar dugun interpretazioa? Hitzaldian zehar, trikitixaren historia eraikitzekeo baliagarri izan daitekeen marko teoriko baten zirriborroa proposatuko da.

Haritz Garmendia

11 KONTUZ, AGURTZANE EZAGUTUZ

ELKARRIZKETA: AGURTZANE ELUSTONDO

1. Nor da Agurtzane Elustondo?

Jose Mari eta Maribelen alaba, eta lau anai-arrebez osatutako familia legazpiar bateko kidea. Ezezkoa esatea asko kostatzen zaiona, eta ondorioz bizitzan aspertzeko asti handirik ez duena.

2. Nondik datorkizu trikitiarekiko zaletasuna?

Gure etxean oso presente egon izan da musika eta nola ez trikitixa. Gurasoak, biak hala biak oso zaleak dira, eta gu umeak ginela erromerietara, jaialdietara eta txapelketetara eramaten gintuzten. Etxean bai irrati eta bai kasetetan trikitixa entzuten genuen. Amaren jaiotetxean, bazen Larrinaga zahar bat, eta han ibili ohi ginen harekin jolasean. Nik soinua ikasi behar nuela esaten nuen. Solfeoa ikasten hasi nintzen eta instrumentua aukeratzeko garaia iritsi zenean, gogoan dut, amak nola esan zidan, soinua txikia ikasteko, alaiagoa zela... eta hala hasi nintzen!

3. Soinu txikiko irakasle ere bazara. Zer eskatzen dute gaur egungo ikasleek?

Badira, fandango eta arin-arin zaharrak edota pasodoble edo bals konkretuak ikasi nahian etortzen direnak, baina belaunaldi berriek orokorrean beste errepertorio bat bilatzen dute: Xabi Solano, Gozategi, Huntza, kanta ezagunak, modan dauden abestiak...

4. Nola uztartzen dituzu ama izatea eta erromerietan ibiltzea?

Ba ahal den moduan! Je, je,...! Ama izateak bizimodua goitik behera aldatu dit. Kontziliazioa konplikatu da. Emakumeok zaintza lanak gure gain hartzearen atzean esleipen kultural bat dagoela uste dut, eta salbuespenak baldin badaude ere, oraindik ere, orokorrean emakumeak egiten dio uko bere zeregin profesionali. Logistika ezinbestekoa da, eta ekitaldiak dosifikatu behar izan ditut... eskerrak etxekoei, eta batez ere ditudan gurasoak ditudala! Gure amaren laguntza inkondizionala izan ez banu... ezingo nukeen plazan jarraitu! Txikiago zela, umea nirekin eramaten nuen, eta atsedenetan, titia ematen nion... koskortzen ari da eta orain etxean uzten dut.

5. Zer du plazak?

Oso gaztetatik nabil plazan, eta oso gustukoa dut jendarteko jarduna. Asko

betetzen nau jendearen gertutasunak eta berotasunak, maitatua sentitzeak, publikoarekin sortzen diren harremanak, konplizitateak, belaunaldi eta mota ezberdinetakoekin dituzun bizipenak...

Baina aitortu behar dut, ama izan naizenetik, askotan oso gogorra gertatzen zaidala etxetik alde egin behar hori. Marenek, "Ez dut nahi amatxo soinu jotzea jutea..." esaten didan bakoitzean... puffff!!

6. Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak lehendakaria zara. Ze erantzun ematen dio jendeak elkarteak antolatzen dituen ekitaldi edo proiektuei?

Jendearen erantzuna oso ona dela esango nuke. Lan ikaragarria egiten da (beti ere helburuei eutsiz) ahalik eta jende gehiagorengana iritsi nahian. Belaunaldi, gustu, izaera, interes eta kezka oso desberdinetako jendea dugu eta profil aniztasun hau kontutan hartu eta hainbat proiektu aurrera eramaten dira urtero. Badira hasiera hasieratik mantentzen ditugun ekimenak, dokumentazio zentroa, ikerketa, biografia liburu-diskak, jardunaldiak, jaialdiak... baina azkenaldian ahalegin berezia egiten ari gara belaunaldi berrien eskariak asetzeko. Esaterako, topaketak, udalekuak, partitura liburuak, edota maketa lehiaketa. Harremanetarako moduetan ere eguneratu beharra izan dugu, eta gaur egungo komunikazio-biderik erabilienak diren sare sozialak ere erabiltzen hasi. Izandako feedbackak gazteengana hurbiltzeko harremanbiderik eraginkorrenetakoa dela begi-bistan utzi digu.

7. Lehendakaria zaren aldetik, zer mezu helaraziko zenieke Euskal Herriko trikitilari-panderojole edota erromerizaleei?

Trikitia geure ondarea da, eta hau indartu eta beronen iraupena bermatzeko ahalik eta ahaleginik handiena egin beharrean gaude. Tradizioa ez da ahaztu behar eta honen transmisioa ezinbestekoa da. Baina irekiagoak izan behar dugu. Gure zilborretik haratago begiratu behar dugu, eta lagun hurkoak egiten duena errespetatu. Trikitiarena, belaunaldi asko batzen dituen mugimendua da, eta bizikidetasun hori aberasgarria izateaz gain, bizirauteko ezinbestekoa dela esango nuke. Bakoi-



Argazkia: Gaizka Peñafiel

tzak egiten duena egiten duela, aukeratzeko duen bidea aukeratzeko duela, gozatu dezala egiten duenaz, eta hala errazagoa izango da publikoa gozaraztea ere. Eta zenbat eta anitzagoa izan, hobeto!!

8. Sasoiko al dago soinua txikia?

Ni baiezkoan nago. Gaur egun Euskal Herrian osasuntsuen dagoen musika tresnetako bat bera dela esango nuke. Soinu txikiaren presentzia ikaragarria da. Formatu batean edo bestean, baina herriko festa zein bestelako ospakizun gehienetan soinuaren irrintzia entzun daiteke: kalejira, omenaldi, urteurren, kontzertu, erromeria, berbena, jaialdi, txapelketa, musika talde desberdinetako kide... musika mota desberdinak landuz...

9. Edari bat?

Egunerorako ura, baina konpainia onean jatordu on bati laguntzeko ardo beltz on bat.

10. Postre bat?

Gure amak egiten dituen torradak.

11. Amets bat?

Oso ameslaria naiz, eta beste bizitza bat ere gutxiegi nuke amets guztiak bete ahal izateko. Behin irakurri nuen, ametsak betetzen zirela, baina arrakasta ez zetzala ametsak egi bihurtzean, hauek lortzeko bidean gozatzean baizik. Beraz, bidean gozatzen segitzeko osasuna eta zortea baino ez ditut eskatzen..!!

OÑATIKO X. TRIKITI JAIALDIA

Hamargarren edizioarekin dator aurtengoan Oñatiko trikiti jaialdia. Urteroko moduan kartel ederra prestatu dute antolatzaleek oraingoan 10 urte hauetan egin diren jaialdietan oholtzatik pasa diren bikoteekin:

- Alaitz, Maixa, Kristina eta Amaia
- Eneko Dorronsoro, Xabi Arakama eta Iban Larreburu
- Izer aita semeak, Epelde eta Lutxurdio
- Edurne, Oihana, Xabi eta Ainara
- Gari, Iñaki, Iban Urdangarin eta Iker Zubeldia
- Mirari, Zalao, Ander eta Aintzane
- Maddi Guridi, Ane Irazabal eta Irati Barrena

Jaialdia urriaren 27an izango da Santa Ana antzokian arratsaldeko 17:30ean. Sarrerak 12€-tan salgai jarriko dira laster. Jaialdiaren ondotik trikipoteoa eta afaria izanen dira.

TXAPELKETAK

Uda garaian nonahi izan dira trikitilari gazteen txapelketak. Hementxe laburbilduta horien emaitzak.

Xanjuandegiko VI. Trikitilari gazteen txapelketa (2018-06-02):

1. Ane Arrizabalaga eta Ane Urzelai
2. Julen Labaka eta Garazi Larrañaga

Orioko IX. Trikitixa txapelketa (2018-06-29):

1. Andoni Oruesagasti eta Uxue Kerejeta
2. Eider eta Lierni Tolosa
3. Ane Etxezarreta eta Sara Iriarte

Elorrioko V. Trikitixa txapelketa (2018-07-01):

1. Andoni Oruesagasti eta Uxue Kerejeta
2. Ane Etxezarreta eta Sara Iriarte
3. Eider eta Lierni Tolosa
4. Aritz Etxaniz eta Enaitz Alberdi

Martindegiko XXII. Trikitilari gazteen txapelketa (2018-07-08):

1. Lierni Tolosa eta Enaitz Alberdi
2. Eneko Urkola eta Julene Sarabia

Arroa Beheko X. Trikitilari gazteen txapelketa (2018-07-15):

1. Julen Labaka eta Garazi Larrañaga

Arroa Goiko VIII. Trikitilari gazteen txapelketa (2018-07-28):

1. Eneko Urkola eta Julene Sarabia
2. Ane Arrizabalaga eta Ane Urzelai
3. Julen Labaka eta Garazi Larrañaga

Goiatzko I. Trikitilari gazteen txapelketa (2018-08-12):

1. Eneko Urkola eta Julene Sarabia
2. Julen Labaka eta Garazi Larrañaga

Euskadiko Trikitilari gazteen XXXVIII. Txapelketa Zeanurin (2018-08-15):

1. Eider Tolosa eta Lierni Tolosa
2. Andoni Oruesagasti eta Uxue Kerejeta
3. Dorleta Urkia eta Mirari Plazaola

Zizurkilgo Trikitilari gazteen txapelketa (2018-08-15):

1. Eneko Urkola eta Julene Sarabia

Irailan ere izanen da txapelketarik. Irailaren 5ean izango da Trikitilari Gazteen XXXVIII. Txapelketa Zarautzen, Euskal Asatearen barruan. Arratsaldeko 19:30ean hasiko da lehiaketa, Lege Zaharren enparantzan eta euria eginez gero, Gaztelekuan. Irailaren 30ean berriz Artadiko trikitixa txapelketa izanen da Zumaiako Artadi auzoan arratsaldeko 18:00etan.



II. MAKETA LEHIAKETA: HAZIAK II

Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak bigarren urtez antolatu duen maketa lehiaketa parte hartze zabala izan da. Aukeraketa egin ondoren, hauek izanen dira diskoan grabatu diren 10 abestiak:

- EURITAN BLAI – Oihan Arizala eta Irati Ibinaga
- URRUNEKO GUTUNAK – Andoni Oruesagasti eta Uxue Kerejeta
- GORPUTZ ASKEAK – LIZAR taldea
- LEHENA – Amaia Etcheverry eta Miren Iralour
- ESAN GABEKOETAN – Iratxo Gorostiza eta Imanol Kañamares
- KATEAK HAUTSITA – Hor dun Koxka
- ISILDUAK – Mainer Azkarraga-Urizar, Eider Garro eta Leire Etxezarreta
- 365 TAUPADA – Egurre taldea
- AMETSETAN – Ainhoa Irazustabarrena, Elene Jaka eta June Olaizola
- DENOK TRIKI-TRIKIAN – Trikini taldea

10 hauetatik bideoklipa grabatzeko aukeratu berriz Mainer Azkarraga-Urizar, Eider Garro eta Leire Etxezarretaren ISILDUAK kantua izan da. Diskoa Durangoko azoka baino lehen argitaratuko da eta www.trikitixa.eus orriko "denda" atalean edota ohiko saltokietan jarriko da salgai.



Trikini taldea.

JOKIN SAN JOSE: LOKATZERA JEISTEN

Jokin San Jose trikitilari bizkaitarrak bere lehenengo diskoa argitaratuko du urrian. Hip Hop baseak trikiti melodiez uztartutako 8-10 abestiz osatutako diskoa izango da. Tartean Jugatz Oleaga panderojolearen irrintziak ere badira. Diskoa urritik aurrera Jokinen beraren webgunean, ohiko dendetan eta Durangoko azokan egonen da salgai. Laster diskoa aurkezteko bideo bat igoko du bere youtubeko kanalera.

JOXE MANUEL AGIRRE:

Zure lana fintzen joan zara, beraz. Instrumenturen bat egiteari utzi al diozu?

Musikarien beharrak zeintzuk diren jakin nahi izan dut beti, behar horiek zein diren entzun eta horiek asetzen saiatu naiz. Ez diot utzi ezer egiteari baina gauzak asko aldatu dira, bai estetikoki eta baita formari begira ere. Instrumentuak hobetu eta aldatu egin dira hasi nintzenetik hona.

Tolosaldeko ataria. 2018-07-09

JOKIN SAN JOSE

Internet bidez ezagutu zenuten elkar; nolakoa izan zen lehenengo kontaktua?

Youtubeko kanal bat dut, eta han jartzen ditut bideoak, trikitia jotzen. Eta hantxe ikusi zuen berak nire bideoetako bat. Facebooken aurkitu, eta soinu txikia erosteko laguntza eske idatzi zidan; hori duela bost hilabete izan zen. Lehen mezu horren antzeko batzuk jasoak nituen, baina, aurrekoetan, instrumentua erosten lagundu izan dīet, eta kito. Hau da trikiti eskolak online ematen ditudan lehenengo aldia. Trikitia heldu zitzaion egun berean hasi ginen eskolekin, duela hilabete eta erdi inguru.

Berria. 2018-07-31

YUKI KOJIMA JAPONIAR MUSIKARIA TRIKITIXAREKIN

Uztailaren 23tik abuztuaren 3ra Yuki Kojima musikaria Euskal Herrian egon da, Jokin San Joserekin aurrez aurre trikitia ikasten. Trikitiaren doinuak liluratuta, internetez egin zuten beraien lehenengo harremana eta whatsapp bidez hartu ditu Kojimak lehenengo eskolak. Euskal Herriko egonaldia pieza berriak ikasteko, zalantzak argitzeko eta hemengo erromeri eta trikitilariak ezagutzeko aprobetxatu du.

ZELATUNGO ERROMERIAK 2018

Aurten ere iraileko igandeetan Zelatunen erromeriez gozatzeko aukera izango da.

Irailak 2: Astiasaran II eta Andonegi

Irailak 9: Baltzola eta Andonegi

Irailak 16: Olarte eta Larrañaga

Irailak 23: Ansorregi eta Larrañaga

Irailak 30: Kupela

KANTA OSATU

MILA GALDERA

HITZAK: Maialen Lujanbio

MUSIKA: Alaitz Telletxea

TALDEA: Alaitz eta Maider "Inshala"

1 ez al dago betea?

zuzena ote oker joatea?

"ona" eta "txarra"ren tartea

non dago nere maitea...?

Mina denontzat al da **2**...?

negarra, denontzat berdina...?

ez al da gaitz bat maitemina...?

latza eta sendaezina...?

Zer magia da sinesmena...?

Zer, **3** bati lotzen nauena...?

Nork sortu zuen "muga" izena...

... eta hesiz josi dena...?

Taktuak, formak, koloreak,

bizi al ditu nork bereak...?

Non du **4** ahuldadeak...?

almazen mugagabeak...?

Ai, ai,... mila galdera...

Ai, ai,... baina bat bera

Ai, ai,... mila galdera...

5 non ote da...?

1.	2.	3.	4.	5.
Basoa	Mina	Etxe	Tokia	Nere maitea
Ibaia	Berdina	Lur	Lekua	Erantzuna
Hutsa	Samina	Lan	Kabia	Oihartzuna